

## IRUTXULO

Aurtengo martxoaren 26ean, Koldo Mitxelena kulturunean, *Irutxulo* astekari donostiar berriaren aurkezpenari ekin zitzaion. Bertan Udaletxeko ordezkari, kazetari eta euskaltzale ugari bildu zen.

*Irutxulo* moduko astekaria aurrera ateratzea izugarritzko erronka da. Bere ezaugarrietako bat dohainik zabaltzea da, beraz; astero kaleratzeko publizitateak ondo funtzionatu behar du, aurrekontuaren %70a publizitatea baita, eta gelditzen den %30a instituzioek emandako subentzioak liratezke.

Astekariaren arduradunek Donostiari buruzko informazioa urria zela ikusirik, eta euskal donostiarrak elkarrekin komunikatzeko zerbait behar zela pentsatuz, Donostiari buruzko informazioan zentratuko den eta guztiz euskaraz izango den astekaria sortzeari ekin zioten. Beraz, Donostia osatzen duten auzoak izango dira ardatz. *Irutxulo*k dituen 36 orrietatik, 13k auzo bakoitzeko informazioek osatzen dute. Auzo horietan korrespon-

salak daude, hauek astero auzo bakoitzean adierazgarri diren gauzetaz informatuko gaituzte. Irutxuloren helburuetako bat hiritarrak korrespontsal izatea da; beraz, astekari-irakurlearen arteko harremana zuzen-zuzena izatea nahi dute.

Auzoei zuzenduriko orri haue-taz gain, *Irutxulo*k atal desberdina-k izango ditu. Hauen artean: kirolak, kultur leihoa kanta zaharrez osatua, Donostiako argazki zaharrak; zine kritika ere egongo da non egunkari desberdinetako kritikoen iritzia agertuko den, eta asteburuan Donostiako hiritarrek izango duten eskeintza kulturala osatuko duen agenda.

Atal guzti hauetan kolaboratzaile fijo batzu egongo dira, bai-na astero aldatzen den jendeak idatziriko bi zutabe ere.

Informazioz ondo egongo den astekaria osatzea, itxuraz atsegi-na eta hiritarrei hurbila, litzateke *Irutxulo* (Donostiari aintzinean arrantzaleek ezarritako izena) as-tekari berri honen arduradunen nahia.

Euskarari bultzada handia emango dion astekaria da *Irutxulo*, euskal prentsan dagoen hutsune handia pittin bat estaliz. Dena den, hutsune hori desgertzea euskaldun guztioi dago-kigu *Euskaldunon Egunkaria*,

*Irutxulo* eta guztiz euskaraz diren herri astekari eta aldizkariak bultzatuz eta lagunduz. Orain sortu berria den *Irutxulo* astekariak etorkizun luzea eta oparoa izatea, beraz, donostiar guztion erronka da hemendik aurrera.

Nerea M. Aranda